

Ordizian, 2015eko uztailaren 21ean, Udaletxe honetako batzar-aretoan bildu zen TOKIKO GOBERNU BATZARRA, aparteko bilkuran.

### BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA: José Miguel Santamaria Ezeiza.

### ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras  
Igor Eguren Izagirre  
Mila Sukia Galparsoro  
Iñaki Dubreuil Churruca jauna

EAJ/PNV  
Ordiziako EH Bildu  
Ordizia Orain  
Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK: Ez dago.

IDAZKARIA: Iker Rocandio Etxeberria

### AZTERTUTAKO GAIAK

- 1.- Zenbait Udal organoren ordutegia.
- 2.- 2015eko jai egitaraua eta aurrekontua.
- 3.- Udalbatzarrak grabatzeko eskaera.
- 4.- Espazio publikoaren erabilera ez diskriminatzailea.
- 5.- Zinegotzi berrien eta irten direnen arteko koordinazioa.
- 6.- Fakturak.
- 7.- S. Jose egoitzan txikizioak.
- 8.- Norberak lekarkeena.

### ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 13:34

AMAIERA ORDUA: 15:14



Lehendakari jaunak eman dio hasiera saioari, lehen puntuari helduta:

### 1.- Zenbait Udal organoren ordutegia.

Udalbatzarraren ordutegia bertan onartu zen baina agian aldatu beharko da. Zehaztuko da aurrerago.

Tokiko Gobernu Batzarra: adostu da ordu honetan egitea.

Batzordeak: adostu da asteazkenetan izango direla, gai arrunten batzordea izan ezik.

Gai arrunten Batzordea: adostu da astelehenean bilduko dela. Deialdiak ostiraletan egingo dira.



### 2.- 2015eko jai egitaraua eta aurrekontua.

Lehendakari jaunak aurrekontuaren fotokopia bat banatu du eta egitaraua komentatu du.

Eraso sexisten aurkako kontzientziazio kanpaina egingo da (EUDELeke proposatua). Kartelak daude, gune publikoetan jartzeko: "Eraso sexistarik gabeko gunea".

"Berdinsarea"-ra atxikituko gara.

Eraso sexista bat egon da jaietan. Lehendakari jaunak informatu du kaltetutako emakumearekin hitzordua duela.

Eguren eta Dubreuil jaunek esan dute eraso gehiago egon omen direla.

Eztabaida sortu da erasoen ostean salaketa jartzearen garrantzia dela eta ez dela.

Sukia andreak esan du protokolo bat sortu beharko zela, salaketen gauzatzea errazteko.

Adostu da jaietako kanpaina Udalaren Berdintasun Batzordeari jakinaraztea.



### 3.- Udalbatzarrak grabatzeko eskaera

Ordiziako EH Bildu eta Ordizia Orain taldeen eskaerei erantzunez, Lehendakari jaunak esan du asmo hori duela gobernu taldeak, Gobernu Irekia proposamenaren barne: aurrekontuak eskatu ditu "streaming" bidez Udalbatzak herritarrei eskaini ahal izateko.



Sukia andreak esan du garrantzitsua dela paperezko aktak garaiz izatea.



#### 4.- Espazio publikoaren erabilera ez diskriminatzailea

Dubreuil jaunak informatu du musulman talde batek eskatu zuela Majoriko anexoa erabiltzeko baimena, ramadanaren amaiera ospatzeko. Majoritik baimen hori eman zitzaien. Eskatu zituzten langa batzuk, emakumeen eta gizonen artean banaketa fisikoa egiteko. Ez zitzaizkien eman, baina nonbaitetik lortu zituzten eta emakumeek esparru propio batean bazkaldu zuten.

Idazkariari eskatu zaio aztertu dezala, juridikoki, espazio publikoaren lagapena legezkoa den era diskriminatzailean erabiltzeko.

Eztabaida sortu da emakumeen integrazioarekiko; hura nola bultzatu. Zinegotziak eta Udal Teknikariak kontaktuan jarriko ditu gobernu taldeak Inmigrazio Teknikariarekin.



#### 5.- Zinegotzi berrien eta irten direnen arteko koordinazioa.

Egin beharreko informazio elkar-trukaketa erabat osatu gabe dagoenez, behingoz amaitu behar da.



#### 6.- Fakturak:

Lehendakari jaunak esan du irailetik aurrera ekarriko dituela batzar honetara.



#### 7.- S. Jose egoitzan txikizioak.

Lehendakari jaunak jakinarazi du txikizio batzuk egon direla Gaztetxeko kontzertuen ondorioz eta ingurua zikin gelditu dela.

Adostu da Gaztetxearekin hitz egitea, jaietan arazoak ekiditeko. Lehenbiziko kontaktua Eguren jaunak egingo du.



8.- Norberak lekarkeena.

Eguren jaunak galdetu du zergatik behartu zuen Udalak arrano beltza kentzera ostiraleko ekitaldian gonbidaturiko dantza-taldea, bere ikonografiaren zati bat zenean.

Lehendakari jaunak erantzun du Ordizian kolektiboak eskatu zuela arranoa kentzea. Arranoa, beranduago, desagertu zen eta ez dakigu nork kendu zuen. Udalak ez zien hori kentzeko esan.

Sukia andreak esan du Ordiziani esan behar zaiola ezin duela horrelako eskaerarik egin.

.....

Eguren jaunak galdetu du ia jaietan pankartekiko irizpideak aldatu diren (Udaltzaingoak pankarta bat kendu baitzuen).

Lehendakari jaunak erantzun du ez direla aldatu: iraingarriak ez diren pankartak ez dira kenduko. Eskatu du oholtzaren atzean pankartarik ez jartzea, horiek bai kenduko baitira.

.....

Eguren jaunak galdetu du zergatik kendu den bizikletak aparkatzeko gunea udaletxeko arkupeetatik.

Alkate jaunak erantzun dio esanez soilik tokiz aldatu dutela, bonberia inguruan ipiniko dutelako.

Eguren jaunaren ustez herrigunean beste bat ipini behar da.

.....

Eguren jaunak eskatu du talde politikoek giltzak behar dituztela, beren lokalak erabili ahal izateko.

Lehendakari jaunak erantzun du bide egokiena izango dela txartelak banatzea.

.....

Eguren jaunak eskatu du gobernu taldearen proposamena idatziz jasotzea, batzordeen osaketa eta bestelakoak jasoz.

Lehendakari jaunak erantzun du egingo dela; ez dela posiblea izan orain arte egitea oso lanpeturik ibili direlako.

.....



Eguren jaunak galdetu du ea zein izango den Santa Ana eguneko prozesioan Udalak izango duen papera.

Lehendakari jaunak erantzun du joango direla norbanako gisa.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

